

ONDARTXO: DOMINIOAREN EGOERA

Lehen lehenik, Ondartxoko gunea eta haraino iristeko paseo osoa, domeinu publikoa dela jakin behar dugu, kasu honetan, portu jardueretara afektatua egonik.

Hau da, guztion jabetza da, herrikoa, kasu honetan Portu Agintaritzak **kudeatzen** duena baina inoiz itsas domeinu publikoa izateari utziko ez diona. Beste hitz batzutan esanda, ez da Portu Agintaritzaren jabetza, berak kudeatzen duen lurra baizik.

Momentu hauetan, ontziola zaharraren orube osoa Foru Aldundiko Kultura sailak dauka emakidan, 2.022ko Abenduaren 31a arte.

Emakidaren akordioan esaten den moduan, bere erabilera **"ontzi tradizionalen ontziolara, ondare intereseko ontziak gordetzera eta oro har, helburu kultural zein turistiko duten ontzien berritze, bizi berritze eta gordetzera"** gidatuko da.

Prozesuaren hasieran emandako informazioan jasotzen den bezala, bai Arau Ordezkatzaileetan, baita Portuko Plan Berezian ere, proposatutako irizpide eta helburuak antzekoak dira. Hori horrela, ondorioztatzen da ez dagoela kontraesanik Portuaren eta Udalaren planeamenduetan.

Halaber, emandako dokumentazioan jasotzen zen Udalak eta Foru Aldundiak sinatu dutela elkarlanerako hitzarmen bat biziberritze jarduerak garatzeko, eta horien artean aurkitzen da Ondartxoko ekipamenduaren proiektua idaztea. Ekintza honen helburua honela deskribatzen da: **"han sartu nahi da Ontziola, ontzi tradizionalen ontziola, eta Kondemasti kala aisia leku gisa lehengoratu egin nahi da, Foru Aldundiarena den ibarraren inguruko eremuekin osatuta"**

ONDARTXO: SITUACION DEL DOMINIO

Lo primero que hay que saber es que tanto la zona de Ondartxo, como el paseo para llegar allí es dominio público, en este caso, afectado al uso portuario.

Es decir, es una propiedad común, del pueblo, que está **gestionada** por la Autoridad Portuaria, pero que nunca dejará de ser dominio público marítimo terrestre. En otras palabras no es propiedad de la Autoridad Portuaria, sino que es un suelo gestionado por ella.

En estos momentos, lo que es la totalidad del varadero está en régimen de concesión a la Diputación Foral de Gipuzkoa, departamento de Cultura, hasta el 31 de diciembre del año 2.022.

Según consta en el otorgamiento de la concesión, se destinará a **"astillero de embarcaciones tradicionales, a depósito de embarcaciones de interés patrimonial y, en general, a la restauración, rehabilitación y conservación de embarcaciones, con fines culturales y turísticos"**.

Tal y como se refleja en la documentación que se entregó al inicio del proceso, los criterios y objetivos planteados tanto en las Normas Subsidiarias como en el Plan Especial son similares, por lo que se concluye que en cuanto al planeamiento urbanístico no existen discrepancias entre el Puerto y el Ayuntamiento.

Igualmente, en la documentación entregada, constaba que el Ayuntamiento y la Diputación han firmado un convenio de colaboración para realizar acciones de regeneración, entre las que se incluye la redacción del proyecto del equipamiento de Ondartxo, cuyo objetivo es **"ubicar en el mismo el astillero de embarcaciones tradicionales Ontziola, así como recuperar ese espacio de la cala Kondemasti, para el ocio y el esparcimiento, completándolo con los espacios circundantes de la vaguada, propiedad de la Diputación Foral"**.